

OÑATI

Elkar Hezi Ikastetxean 'Zero Zabor' programa bat abian jarriko da gida-esperientzia gisa

23.01.13 - 00:17 - M.G. | OÑATI.



Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aranzadi Zientzia Elkartek, Kristau Eskolak eta Ikastolen Elkartek sinatu duten 'Zero Zabor Eskoletan' lankidetzaz hitzarmena, Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxean abian jarriko da gida-esperientzia gisa.

Hitzarmen honen helburua da hondakinen inguruko Zero Zabor filosofia hezkuntza programa batean txertatzeko ekinbidea osatzea. Hau da, sekuentzia didaktiko bat sortzea hondakinen kudeaketa Zero Zabor filosofian txertatuta, eta euskal curriculumean, ikasgai baten edo gehiagoren programazioan, kompetentzietan, ikaste-prozesu aktiboan eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritua.

Hezkuntza programa honek kontuan hartuko ditu eragileen beharrizanak, testuingurua, hezkun-tzaren marko legala, gizarte interesak, ikaste-irakaste prozesuen beharrizanak, erlazioa duten beste proiektuak... Beraz, hezkuntza eragileen interesak,

beharrizanak, gomendioak, esperientziak... aintzat hartuko dira; eta programan parte hartuko duten eragileen elkarlana sustatuko da.

Prozesua behar bezala gauzatzen dela egiaztatzeko helburuarekin, jarraipen batzorde bat sortuko da alde guztien adostasunarekin eta Kristau Eskolako ordezkaria Oñatiko Juankar Olaeta izango da.

Otsailean lehenengo tailerra

Dagoeneko Aranzadi Zientzia Elkarteko ordezkariarekin kontrastaturik eta guztiz prest dituzte Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailerako tailerrak, eta aurrenekoa ('Zero Zabor hamaietako') otsailean garatuko dute Elkar Hezi ikastetxean; bigarrena ('Konpostatze tailerra') ikasturte bukaera aldera.

DBH osorako ere prestatzen ari dira baliabide didaktikoak, eta une honetan oinarritzko diseinua egina dute. Kasu honetan, 15 orduko tailerra izatea aurreikusten da, eta ikuspegia da ikasgai edota arlo ezberdinetan proiektu integral gisa lantzea.

Elkar Hezin halaxe egin asmo dute, baina ekimena gainerako ikastetxeetara zabaltzen denean, bakoitzak erabaki ahal izango du ikasgai bakar batean egitea ere. Tailerren dinamizatzailerak eta ikastetxeetan laguntza eta aholkua emango dituztenak, Aranzadi Zientzia Elkarteko Rai Mendiburu eta Mikel Errazkin izango dira, gaien adituak izateaz gain, hezkun-tza prozesu eta metodologietan ere jantziak.

Aipatu moduan, gaia era zientifiko eta kritiko batez landuko da Zero Zabor filosofiarekin bat, eta berariaz ez da hondakinen kudeaketarako inolako molde edo bitarteko baten alde edo aurka egingo, horixe oso zainduko delarik, izan ere, ezagutza eskuratu eta azterketa kritikoa egin ostean, norberari dagokio bizitzan askatasunez bere hautu pertsonal arrazoitua egitea, egun ezbaian direnen artean kasu, edo sormenez proposatutako beste batzuen artean, inoiz ez dogmatismoz eta itxikeriaz.